

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**121. zenbakia****Data 2003-06-27****12693 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****ITSASONDOKO UDALA****Errota frontoiaren funtzionamendua arautzeko erregelamenduaren aldaketa. Behin betiko onespena.****ITSASONDOKO UDALA***Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe igaro denez, behi betiko bihurtu da Udalbatzak 2003ko apirilaren 3an «Itsasondoko Errota frontoiko funtzionamendurako arautegia» aldatuaz hartutako hasierako erabakia.

Beraz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua dionaren arabera, erregelamendu horren testu osoa argitaratzen da, zeina hitzez hitz dion:

Itsasondoko Errota Frontoiko funtzionamendurako Arautegia.

Itsasondoko Errota pilotalekuaren funtzionamendurako beharrezkoa gertatzen da arautegi bat ezartzea, ordu desegokietan erabiltzeari amaiera emateko eta aldi berean ahalik eta pertsona gehienek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Esandakoaz gain, ordutegi bat ezarri beharra dago hurrek lehentasuna izan dezaten pelotan jokatzeko eta gainontzeko kirol iharduerak burutzeko, kontuan izanik herrian kirolak burutzeko dagoen leku egoki bakarra frontoia dela.

Hori dela eta, Udal honek pilotalekuaren funtzionamendurako ordenantza erregulatzailea ezartzea onartzen du, honela diolarik:

1. artikulua.

Arautegi honen xedea Udal pilotalekuaren erabilerari eta funtzionamenduari atxiki beharrezko arauak ezartzea da.

2. artikulua.

Udal pilotalekua goizeko 8etatik gaueko 10ak arte erabil daiteke, behar bezala baimendutako ekitaldi publiko edo txapelketak daudenean izan ezik.

3. artikulua.

Pilota eta kirol iharduera desberdinen ariketa bultzatzeko asmoz, 15 urtez beherakoek lehentasuna izango dute pilotalekua erabiltzeko 12:30etatik 17:30etara eskola oporren garaian; aste barruan eta urtean zehar 16:30etatik 19etara eta larunbat igande eta jaiegunetan, berriz, 14:30etatik 17:30etara, ondoren eta gaueko 10ak bitartean libre geldituko delarik.

4. artikulua

Partikularrek erabilera pribatibo bidez modalitate desberdinetako txapelketak antolatzeko instalazioaz baliatzeak, bai federatuen aldetik bai afizionatuen aldetik, Udalaren baimena beharko dute, bertan xehetasun desberdinak aipatuko direlarik.

5. artikulua.

Frontoia kirola ez den bestelako ihardueretarako edo okupaziorako erabiltzeko Udalaren baimena beharko da.

6. artikulua.

15 urtez beherakoei erreserbaturiko ordutatik kanpo Pilota kirolak lehentasuna izango du gainerako kirol iharduerekin.

7. artikulua.

Jendea zai balego frontoia erabili ahal izateko gehieneko epea ordu batekoa izango da. Eskola-umeen txango bat etortzen bada, hauek izango dute lehentasuna beti ere eguraldi txarra egiten duenean.

8. artikulua.

Frontoian Udalak jartzen duen argiaz aparte, gaueko 10ak arte argi gehiago nahi izanez gero, ordaindu egin behar da.

9. artikulua.

Pilotalekua aurrez aloka daiteke astelenetik ostirala bitartean arratsaldeko 7etatik 10etara bitartean, jai egunetan ezik indarrean dauden prezio publikoak ordainduz. Udalak antolatutako ekitaldiak lehentasuna izango dute.

10. artikulua.

Frontoian jolasteko orduren bat aurrez hartzen bada, gehienez hiru hilabetetarako hartu daiteke. Ordu arazorik egongo ez balitz, nahi izanez gero beste hiru hilabetetarako luza daiteke, eta balego, zozketa egingo da interesatuen artean. Itsasondoko biztanleei lehentasuna emango zaie.

11 artikulua.

Udalak erretuko du frontoiaren ordutegia, non adieraziko diren hartuta dauden orduak eta arauak.

12 artikulua.

Pilotalekua beste erabilpen batzuetarako ere alokatu ahal izango da (mitinak, kontzertuak, antzerkiak) honetarako Udalaren alde aurreko baimena beharrezkoa izango da.

13 artikulua.

Erabiltzaileek edozein erreklamazio edo argibide idatzi baten bidez Udaleko bulegoetan egin beharko du.

Azken xedapena.

Ordenantza honek indarrean jarraituko du ondorengo xedapen baten bidez aldatzen ez den bitartean.

Itsasondo, 2003ko ekainaren 14a.—Alkatea.

(86) (7131)